

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zure ingurua aprobetxatuta

- **Egizu inkesta bat zure inguruko arteen:** familiakoak, lagunak, lankideak... Zorizko jokoen inguruko galdera sorta bat prestatu ahal duzu: ea gustuko dituzten, dirua jokatzen duten... A! Nola ez! Aprobetxatu galdetzeko ea zer egingo luketen loteriarri esker aberastuko balira. Erantzunak jasota, **kontatu ikaskideei inkesten bidez jasotako ideia nagusiak.**

Internet erabilia

- Hona hemen aste honetan jorratuko duzun gaiaren inguruko erreportaje interesgarri bat, ikuspuntu original batetik idatzia: [Loteria, kapitalismoaren sinbolo](#). Erreportajea irakurri eta ideia nagusiak eskema batera ekarri. Lana bukatutakoan, azaldu ikaskideei jasotako ideiarik interesgarrienak eskemaren laguntzaz.
- Bideo atsegin bat ikusi nahi? [Loteria irabazi ala ondo lo egin?](#) izeneko erreportajea, bergarar batzuei honako galdera hau egin diete: zer nahiago duzu, ondo lo egin ala loteria tokatzea? Erantzun batzuk oso harrigarriak dira! Bideoa ikusi eta kontatu ikaskideei zein iruditu zaizkizun erantzunik xelebreenak.
- Hona hemen loterian dirutza irabaziz gero zer egin azaltzen duten hiru testu. Hitz egin ikaskide birekin, bana irakurri eta elkarri azaldu aholkurik garrantzitsuenak.
 - ✓ [Eta egokitzen bazaizu?](#)
 - ✓ [Loteria tokatzen bazaizu, kontuan hartu beharrekoak.](#)
 - ✓ [Eta loteria tokatuz gero, zer egin?](#)

